




EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular



Ebazpena, 2024ko otsailaren 19koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Azpeitiko HAPoren AMUE 11. HERako Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko ingurumen-adierazpen estrategikoa.

AURREKARIAK

2022ko abuztuaren 22ko Ebazpenaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, EAED-175INET espedientearen esparruan, Azpeitiko HAPoren AMUE 11. HERako Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua formulatu zuen, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Alkatearen 2023ko otsailaren 28ko ebazpenaren bidez, hasiera batean onetsi egin zen Azpeitiko HAPoren AMUE 11. HERako Hiri Antolamenduko Plan Berezia.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Azpeitiko Udalak Planaren eta haren ingurumen-azterketa estrategikoaren jendaurreko informazioaren izapidea bete zuen, jendaurrean 45 egunez jarrita, 2023ko martxoaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko (51. zenbakia) iragarkiaren bidez. Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko izapidea bete zuen.

Azpeitiko Udalak, 2023/11/10eko ziurtagiri baten bidez, jendaurreko informazioaren aldiari alegazio aurkeztu zirela adierazi zuen, eta alegazio horren edukia igorri zuen, administrazio publikoei entzuteko izapidean jasotako txostenekin batera; horien emaitza eta edukia administrazio-espedientearen jasota daude.

2023ko azaroaren 10ean, Azpeitiko Udalak Azpeitiko HAPoren AMUE 11. HERako Hiri Antolamenduko Plan Bereziari (aurrerantzean, Plana) buruzko ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko eskaera egin zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari.

Eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu zituen: Plan Bereziaren behin betiko proposamena (behin-behineko onespenerako dokumentua), 2023ko azarokoa; ingurumen-azterketa estrategikoa, 2023ko azarokoa; eta informazio publikoaren izapidea eta ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei entzunaldia egiteko izapidea azaltzeko zenbait dokumentu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumen-eragin nabarmenak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasangarria sustatzeko.

Donostia – San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz



Halaber, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikulua arabera, ingurumen-ebaluazioak ingurumena babesteko maila handia bermatu eta garapen jasagarria sustatuko du. Horretarako, planak, programak eta proiektuak egiteko, hartzeko, onesteko edo baimentzeko ingurumen-alderdiak bateratuko ditu; ingurumen-alternatiba bideragarriak aztertu eta hautatuko ditu, ingurumenarekiko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala badagokio, konpentsatzeko aukera ematen duen neurriak ezarriko ditu, eta ingurumen-ebaluazioaren helburua betetzeko beharrezkoak diren zaintza-, jarraipen, eta zehapen-neurriak ezarriko ditu.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, horiek lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko esparrua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzorua erabilerari.

Orobat, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 61. artikuluan xedatutakoaren arabera, II.A. eranskinean zehazten denari jarraituz ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen planei, programei eta horien aldaketei eta berrikuspenei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo zaie. Eranskin horretan jasotako plan eta programen artean, etorkizunean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen duten eta arlo jakin batzuei –hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzorua erabilera– erreferentzia egiten dieten planak eta programak daude.

Halaber, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikuluan eta hurrengoetan eta Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikuluan eta hurrengoetan adierazitakoaren arabera, bai Azpeitiko Udalak, bai Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak beharrezkoa den guztia xedatu dute planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura aurrera eramateko ingurumen-azterketa estrategiko baten bidez, zeinaren irismena aurrez ezarri baita kontsulta publikoen eta eraginpeko administrazio publikoen eta herritar interesdunen parte-hartze prozeduraren bitartez.

Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, eta kontuan hartuta ingurumen-azterketa estrategikoa egokia dela eta indarrean dagoen araudiari egokitzen zaiola, ingurumen-adierazpen estrategiko hau eman du Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, organo eskuduna baita otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez ezartzen baita Ekonomiaren Garapen, Jasagarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala. Esandako adierazpen horretan, ingurumenaren arloko alderdiak Planaren proposamenean txertatzearen aldeko balorazioa egiten da, eta Planak ingurumenean eragingo dituen inpaktu esanguratsuen aipamena ere jasotzen da, azkenean onartuko den Planean sartu beharreko azken zehaztapenak barnean direla, ingurumen-ondorioetarako bakarrik.

Kontuan hartu dira 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasagarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Azpeitiko HAPOn AMUE 11. HEan Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko ingurumen-adierazpen bat formulatzea, honako baldintza hauekin:

A) Planaren eremua Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko EU 11 Amue Exekuzio Unitatea da, 90.492 m²-ko azalerakoa. Eremuaren hegoaldeko eta mendebaldeko ertzetan Ibaieder ibaiaren ibilgua dago, iparraldean Foru Pasealekua eta ekialdean Joan XXIII.a kalea.

Planaren xedea da AMUE 11 HEaren antolamendu xehatua definitzea, Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (aurrerantz, HAPOn) ezarritako zehaztapenak garatuz.

Planak esku hartzeko oinarritzko irizpide hauek ezartzen ditu:

- Eremuko egungo industria-sarea eraldatzea eta bizitegi-garapen berri bat antolatzea. 43.740 m² definitu dira bizitegi-eraikigarritasun berrikoak (468 etxebizitza), 15.040 m² hirugarren sektoreko erabileretarako eraikigarritasunekoak, eta 2.800 m² komunitatearen ekipamenduko zuzkiduretarakoak.

- Proposatutako garapenarekin bateraezinak diren eraikinak eraistea, industria-jarduerak Trukutxoko eremura eraman ondoren. Ipar-mendebaldeko ertzean, Ibaiederren gainean kokatutako bizitegi-eraikina antolamendutik kanpo uztea.

- Komentuko eraikina finkatzea eta balioa ematea hirugarren sektoreko edo zuzkidurako erabileretarako, hargatik eragotzi gabe komentu-erabilera finkatzea. 7.680 m².

- Amue zubia finkatzea eta balioa ematea.

- Betelanak egitea, etorkizuneko bizitegi-garapenak 500 urteko errepikatze-denborako uraldia irits ezin daitekeen kotaren gainetik kokatzeko, eta proposatutako antolamendua eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean (2022-2027) Planaren eremuan proposatutako egiturazko konponbideak bateratzea.

- Bide berria udal bide-sarean txertatzea (GI-631 errepidearekin lotura, Garmendialderekin lotura eta Enparanalderekin lotura), trenbide-trazadura berreskuratzea eta HAPOn planifikatutako bidegorriaren trazadurari jarraipena ematea.

- Ibaieder ibaiaren eskuineko ertza leheneratzea eta ibaiertzeko pasealeku bat sortzea. Horrez gain, berdegune bat zehazten da, komentuaren etorkizuneko ekipamenduarekin batera ezartzeko.

Proposatutako antolamendua honakoa da:

Bizitegi-eraikigarritasun osoa (44.460 m²) hiru bloketan antolatuta dago (R.1, R.2 eta R.3 lurzatiak). Bloke horiek etxadi irekiak osatzen dituzte, bat hegoalderantz eta beste biak mendebalderantz. Hegoaldera irekitako etxadia, nagusiki, babes-araubideko etxebizitzetarako erabiltzen da (etxebizitza tasatua eta erregimen orokorreko etxebizitza babestua). Blokeak, gehienez, 4S+BS+7+A eraikin-profila du. Beheko eta lehenengo solairuetan, hirugarren sektoreko erabilerak antolatzen dira merkataritza-lokaletarako eta bulegoetarako, gehienez 4.790 m²-ko eraikigarritasunarekin. Mendebaldera irekitako beste bi etxadiek gehienez 4S+BS+5+A eraikin-profila dute, ia osorik erregimen libreko etxebizitzetarako dira eta hirugarren sektorerako erabiltzen da beheko solairuan.

Bizitegitarako lurzatiek 14.118 m²-ko azalera dute guztira; horietan, sestra gaineko gehieneko bizitegi-eraikigarritasuna 44.640 m²-koa da guztira, eta sestra azpiko gehieneko eraikigarritasuna 28.236 m²-koa da. Definitutako gehieneko eraikuntza-profila ez bezala, IAEaren eta Planaren

AP.03 «Antolamendu orokorra. Sekzioak» Planoan, sestra azpiko bi solairu soilik aurreikusten dira bizitegi-blokeetan.

Bizitegi-blokeetan ezartzen ez diren hirugarren sektoreko erabileren gainerako eraikigarritasuna, nagusiki, komentuarien eta lehen bizitegi-etxadiaren artean dagoen 4.890 m²-ko azalera duen lurzati batean (T.1) antolatzen da. Bertan, 3S+BS+5 gehieneko eraikin-profileko eraikin bat antolatzen da, sestra gaineko 10.150 m²-ko eta sestra azpiko 5.000 m²-ko eraikigarritasunarekin.

Komentua T.2 deritzon lurzatian dago finkatuta, 3.506 m²-ko azalera duena. Bertan, lehendik dagoen hirugarren sektoreko erabilera bermatzen da (7.688 m²), eta hirugarren sektorerako erabiliko diren eraikinak egiteko 100 m² gordetzen dira, handitze txikiak egin ahal izateko. Lurzatiaren gehieneko profila BS+1 izango da.

Plan Bereziak irizpidetzat hartzen du 500 urteko errepikatze-denborako uraldien uholde-arriskuaren kota libratzea, egun duen egoeran, bigarren zikloko (2022-2027) Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean (UAKP) aurreikusitako hobekuntzak kontuan hartu gabe; gauzak horrela, eraikin berriak 84,60 eta 83,60 bitarteko koten artean antolatzen dira.

Antolamendua bide berri baten bidez egituratzen da, zeina eraikin berrietarako sarbidea izango baita, eremuaren perimetrotik igarota. Bide nagusi hori GI-631 errepidearekin lotura izango duen biribilgune berri batetik abiatuko da, eta,aldi berean, alde zaharrarekin lotzen diren bi kale ere barnean hartuko ditu.

Garmendialdera ibilgailuak irits daitezen lortzeko, Plan Bereziak lurzoru-erreserba bat ezartzen du etorkizunean zubi bat eraikitzeko. Zubi hori egiteko eraikuntza-proiektu bat izango da, urbanizazio-proiektu orokorrarekiko independentea, eta uholde-arriskuagatik dauden baldintzatzaileak konpontzean gauzatuko litzateke.

Garmendialdera oinezkoak irits daitezen lortzeko, aurretiaz deskribatutako zubian egongo liratekeen espaloiez gain, Ibaieder ibaiaren gainean pasabide berri bat antolatu da, Harzubia kaleko 15 zenbakiaren parean. Pasabidearen diseinua, aurreko kasuan bezala, 2022-2027 UAKPn aurreikusitako jarduketan exekuzioaren arabera izango da, bai eta beste aldeko ertzaren hirigintza-garapenaren arabera ere; beraz, honakoa ere urbanizazio orokorreko proiektua ez den aparteko proiektu baten bidez garatuko da.

Antolamenduak lotura bat planteatzen du txirrindularien eta oinezkoen egungo ibilbideen sarearekin, Amue zubitik, eremuan proposatutako bide berriarekin paraleloan, biribilgune berrira iritsi arte; bertatik berriro lotuko da eremu horretan egun dagoen sarearekin.

Era berean, erreserba bat jarri da Urola ibarreko trenbide trazadura zaharra lehengoratzeko eta etorkizunean azpiegitura hori eskualde-mailan berreskuratzea ahalbidetzeko.

Espazio libreei eta zuzkidura publikoei dagokienez, etxebizitzaren inguruan sortutako espazio publikoez gain, berdegune handi bat antolatzen da komentuarien, hirugarren sektoreko erabilerrako eraikinaren eta lehen bizitegi-etxadiaren artean dagoen espazioan. Lurzati hori Ibaieder ibairantz irekita dagoen zuhaitzak dituen berdegunea izatera bideratzen da, eta parkearen berezko aisialdi-erabilera beste mota bateko hornidura publiko batera zabaltzea ahalbidetzen du, hala behar izanez gero.

Horrez gain, plaza gogor txiki bat antolatu da komentuarien ondoan, Foru Pasealekutik sarbidea izango duena, eta bide emango diona Ibaiederren eskuinaldean ibaitzeko pasealeku handi bati; perimetro osoa inguratuko du eta Amueko zubiarekin eta inguruan dauden bizikletentzako eta oinezkoentzako ibilbideekin lotura izango du.

Ibaiederren ertzeko berdegune hori asko zabaltzen da Urola ibaiarekin bat egiten duen tokian, jarduketa hidraulikoa egitea aurreikusten den tokian. Jarduketa horrek gaur egun bi ibilguen arteko elkargunean dagoen tapoia kenduko du.

Beste ekipamendu komunitarioa eremuaren ekialdean antolatzen da, Amue zubiaren alboan, bizitegi-garapen berriari zerbitzu ematen dion ibilgailuentzako bide berriaren beste aldean, eta ekipamendua eta ibaiaren ertzeko parkea lotzen dituen oinezkoentzako ardatz garrantzitsu baten amaieran. 3.087 m²-ko lurzati bat da, non lerrokadurak antolatu baitira etorkizunean eraikin bat egiteko. Eraikin horrentzat 1.000 m²-ko (t) irabazi-asmorik gabeko eraikigarritasuna aurreikusten da.

Eremuan behar adina zerbitzu-azpiegitura egongo da.

Honako hau da definitutako zonakatze orokorra:

A.20/11 zona (eraikuntza intentsiboko bizitegia). Azalera: 55.623 m².

E.10/11 zona (errepide eta herri barruko bide nagusiak). Azalera: 7.945 m².

E.20/11 zona (txirrindulari eta oinezkoentzako bide berezien sarea). Azalera: 750 m².

E.30/11 zona (trenbide-sarea). Azalera: 1.015 m².

F.10/11 eremua (hiri-espazio libreak). Azalera: 19.566 m².

H.10/11 zona (ibai-ibilguak). Azalera: 6.023 m².

Esku ez hartzeko edo 0 alternatibaz gain, bizitegi-erabilerak, hirugarren sektorekoak eta berdeguneak antolatzeko lau alternatiba aurkezten dira, trenbide-trazadura, bizikleta-trazadura eta bide-trazadurarako erreserbarekin batera.

Ingurumenaren ikuspegitik, alternatiba horien arteko desberdintasun nagusiak eraikin-blokeen eta espazio publikoen konfigurazioan daude, horiek lurzorua kontsumo desberdinak eragingo baitituzte, eta, era berean, planteatutako bide-soluzioak eta trenbide-trazaduraren erreserba; izan ere, kasu horretan, Ibaiederren ibilguaren gainean pasabide berriak eraiki beharko dira.

Planteatutako garapenaren beharra justifikatuta, aurreko paragrafoetan deskribatutako eta baliatutako alternatiba ingurumenaren eta hirigintzaren ikuspegitik planteatutako irtenbiderik onenen konbinazioa da.

Planaren eremua ia osorik eraikin industrialek, Frantziskotarren komentuek eta ipar-mendebaldeko muturreko bizitegi-eraikin batek okupatzen dute. Testuinguru horretan, dagoen espazio libre bakarra komentuko baratzeena da.

Honako hauek dira haren ingurumen-ezaugarri nagusiak:

- Eremua Urolako Unitate Hidrologikoan dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen eremuan. Zehazki, Ibaieder ibaiaren isurketa-arroek eta Urola ibaiak –Ibaieder-B eta Urola-D ur-masa gisa identifikatuak– bat egiten duten tokian dago kokatuta.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak (Kantauriko isurialdea) Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren (aurrerantzean, LPS) arabera, osagai hidraulikoa kontuan hartuta, Ibaieder ibaia III. mailakotzat identifikatzen da (100-200 km²-ko ibaiadar-arroa) eta Urola ibaia IV. mailakotzat (200-400 km²-ko ibaiadar-arroa).

- Eremua Izarraitz lurpeko ur-masaren gainean dago, zehazki Eremu Ipar Antiklinorioko Izarraitz sektore kuaternarioaren gainean, zeina interes hidrogeologikoko eremu gisa baitago identifikatua.
- Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroaren (EBE) arabera, Ibaieder ibaia interes ekonomikoko arrain-espezieak babesteko eremua da.
- Eremuko landaredia komentuaren aurreko lorategi eta baratzeetara mugatzen da, eta ibaiertzeko landaredi-zerrenda txiki bat dago Ibaiederren ibilguaren eta industria-eraikinen artean, haltzadi kantauriar bat biltzen duena. Zehazki, eremuaren hego-ekialdeko muturrean dagoen erriberako landaredi-masa Batasunaren intereseko habitat (BIH) gisa identifikatzen da: «*Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieetako baso alubialak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*)» (kodea: 91E0*).
- Eremuaren ezaugarriak kontuan hartuta, fauna-espezieak hiri-eremuei edo hiri-inguruko eremuei lotutakoak izango dira. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da Ibaieder ibaiaren ibilgua, eremuaren ipar-mendebaldeko muturrean, Urola ibaira isurtzen den arte, bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) interes bereziko eremu gisa identifikatzen dela. Espezie hori desagertzeko arriskuan dago, eta kontserbatzeko kudeaketa-plan bat du (Foru Agindua, 2004ko maiatzaren 12koa, zeinaren bidez *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) bisoi europarraren kudeaketa-plana onartzen baita Gipuzkoako Lurralde Historikoan, 2004-05-28 GAO), kontserbatzeko.
- Eremua ez da Natura 2000 sareko naturagune babestua, ez eta hezegunea ere, ez eta bestelako gune babestua edo inbentarioan sartutako natura-intereseko gunea ere. Halaber, ez dago jasota beste katalogo batzuetan (ez EAEko naturagune garrantzitsuen katalogo irekian, ez Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako interes naturalistikoko eremuen zerrendan), ez dira Onura Publikoko Mendiak identifikatzen eta ez dago EAEko Korridore Ekologikoen Sareko elementurik. Adierazi behar da Ibaieder eta Urola ibaiak EAEko azpiegitura berdearen bilbe urdinean daudela sartuta.
- Paisaiari dagokionez, Planaren eremua Azkoitiko ikus-arroan dago. Arro arrunta da eta paisaia-balio ertainekoa, eta ez dago jasota Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan. Zehazki, azterketa-eremua Azpeitiko hirigunearen barruko industria-gune batean sartzen da.
- Interes kultureko elementu hauek identifikatu dira eremuan:
 - Amue zubia. Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatutako higiezina. Babes-maila: berezia. Agindua, 1964ko otsailaren 17koa (BOE, 1964-02-29).
 - Santa Klara komentua. Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatzeko proposatu den higiezina. Proposatutako babes-maila: ertaina.
 - San Frantzisko komentua (Santa Klara). Balizko Arkeologia Gune gisa aitortua. 1997/10/13ko EHAA, 195. zk.
 - Enparan errota. Balizko Arkeologia Gunea. 1997/10/13ko EHAA, 195. zk.
 - Corrugados Azpeitia SL. Toki-mailan interes arkitektonikoa duen elementua.
 - Hamazazpigarren zubia. Toki-mailan interes arkitektonikoa duen elementua.
- Ingurumen-arriskuei dagokienez, eremuan muturrekoak eta oso larriak diren higadura-prozesuak dituzten eremuak identifikatzen dira, egungo industria-instalazioak lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako 20018-00022 lurzatiaren gainean daude, eta eremuaren azpian dagoen akuiferoak urrakortasun handia du kutsaduraren aurrean. Horrez gain, eremuak uholde-arriskua izan dezake. Ibaieder eta Urola ibaien lehentasunezko fluxu-eremuan sartzen da osorik; horien ibilguak Azpeitiko UAHEan sartzen

dira (kodea: ES017-GIP-URO-02). 10 urteko errepikatze-denborako uholdeek urez bete ditzaketen eremuak ibilgu horien trazadurara mugatzen dira; hala ere, eremuaren gainerakoan, 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua egon daiteke.

– Zaratari dagokionez, GI-631 errepidea eta eremua inguratzen duten kaleak dira Planaren eremuari eragiten dioten emisio-foku nagusiak. Eremuaren zati bat GFaren errepideetako zortasun akustikoko eremuaren barruan dago –kasu honetan, GI-631 errepidearekin lotuta–. Aurkeztutako Inpaktu Akustikoaren Azterketaren emaitzen arabera, gaur egun betetzen dira nagusiki bizitegi-erabilera duten eremu akustikoetarako ezarritako Kalitate Akustikoko Helburuak, aztertutako hiru aldietan (eguna, arratsaldea eta gaua).

B) Ebazpen hau bat dator ingurumen-azterketa estrategikoaren ondorio nagusiekin, eta uste da nahikoa justifikatu dela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak 2022ko abuztuaren 22ko Ebazpenaren bidez emandako irismen-dokumentuan aurkeztu ziren ingurumen-irizpideen integrazioa.

Planak ingurumen-azterketa estrategikotik eratorritako ingurumen-alderdiak txertatu ditu, ingurumen-organoak emandako irismen-dokumentuan eskatutako sakontasun-, xehetasun- eta zehaztasun-maila bermatuta. Plangintza-prozesuan ingurumen-inpaktu posibleak kontuan hartzen direla bermatzeko, uste da behar besteko zorroztasunez heldu zaiela ingurumen-izapidean adierazitako irizpide guztiei.

C) Plana izapidetzean, ez da gehitu ingurumen-azterketa estrategikoa zabaltzea eskatzen duen jarduketa berririk, eta ez da atzeman birdefinitu edo kendu behar den Planaren jarduketarik.

D) Indarrean dagoen araudiaren arabera hartuko dira babes-, zuzenketa-, konpentsazio- eta jarraipen-neurriak, baita hurrengo apartatu hauetan xedatutakoaren arabera eta, aurrekoa galarazten ez dutenetan, ingurumen-azterketa estrategikoan aurreikusitakoaren arabera ere. Halaber, Planak zehaztaperik hauek jaso beharko ditu:

D.1.– Uholde-arriskuak murrizteko neurriak.

Uraren Euskal Agentziaren 2023ko maiatzaren 18ko txostenean xedatutakoaren arabera, bizitegi- eta zuzkidura-erabilera berriak 500 urteko errepikatze-denborako uraldiei dagokien kotaren gainetik jarriko dira. Gainera, proposatutako antolamendua bateragarria da UAKPk (2022-2027) eremurako aurreikusitako egiturazko neurriekin, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeako Lurralde Plan Sektorialean ezarritako atzerapenak betetzen dira, eta Planaren proposamenak egungo baldintza hidraulikoak hobetzea ekarriko du.

Hirugarren sektoreko edo zuzkidurako erabileretarako komentuak lehentasunezko fluxu-eremuan egoten jarraitzen du. 35/2023 Errege Dekretuak lurzoru urbanizatuan lehentasunezko fluxu-eremuko erabileren mugei buruz 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, eraikinak konpontzeko edo birgaitzeko obrak egin ahal izango dira, baldin eta ez badira ikastetxe edo zentro sanitario berriak, adinekoentzako edo desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak, kirol-zentroak edo jende-pilaketa handiak izan ditzakeen merkataritza-gune handiak (elkargune publikoko erabilera). Era berean, ezin izango dira suhiltzaile-parkeak, espetxeak edo babes zibileko zerbitzuen instalazio berriak eraiki. Azkenik, jarduketa horiek guztiek ezin izango dute pertsonen edo ondasunen segurtasunaren urrakortasuna areagotu uholdeen aurrean, ez eta ingurunearen uholde-arriskua nabarmen areagotu ere.

Halaber, eraikinek lurpeko garajeak eta sotoak izan ahalko dituzte uholde-arriskuko eremuan, baldin eta bermatzen bada esparrua iragazgaitza dela 500 urteko errepikatze-denborako uraldien aurrean. Gainera, garaje eta sotoak ebakuazio bideak eta haizebideak izan beharko dituzte aipatu uholde-kotatik gora.

Aurrekoa eta organo eskudunak aplikatzekoak diren prozeduren esparruan ezarritako baldintzak gorabehera, Planaren garapena bat etorri beharko da Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren (apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua) 9. eta 14.bis artikuluetan xedatutakoarekin, bai eta urtarilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuak onartutako 2022-2027 Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Espainiako aldeko Plan Hidrologikoaren xedapen arautzaileen I. eranskineko 43., 45. eta 46. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren E.2 apartatuko uholdeen aurkako babesari buruzko berriarazko araudian xedatutakoarekin ere.

D.2.– Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei buruzko neurriak.

Eremua lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako 20018-00022 kodeko lurzatian dago. IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren txostenaren arabera (2023/07/18), inbentarioan sartutako lurzati horretan jarduketak egin dira (DCS-0108/21-MB) izeneko espedientearen esparruan, baina ez dira lurzoruaren kalitatearen adierazpenarekin burutu.

Beraz, lurzoru horiek identifikatzen diren inbentarioan jasotako lekuetan edozein jarduketa egin aurretik, lurzoruaren kalitatearen adierazpena izapidetu beharko da, baldin eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako egoeretako bat gertatzen bada, hala nola kutsagarria izan daitekeen jarduera edo instalazio bat duen edo izan duen lurzoru baten erabilera-aldaketa.

Kasu honetan, lurzoruaren kalitatearen adierazpen hori antolamendu xehea jasotzen duten hirigintza-bitartekoak behin betiko onartu baino lehen egin beharko da; edo, lurzoruaren kalitatea ikertzea oztopatuko luketen inguruabarrak egongo balira, jarduketa urbanizatzailearen programari edo lekua barne hartzen duen kudeaketa-esparruko birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuei hasierako onespina eman aurretik, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 31.4 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik.

Halaber, lege horren 23.2 artikulua arabera, 23.1 artikuluan jasotako jarduketa baten ondorioz lurrak mugitu behar badira, hondeaketa selektiborako plan bat onartu beharko du aldez aurretik autonomia-erkidegoko ingurumen-organok, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozeduraren esparruan.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, obrak egin bitartean lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten beste kokagune batzuk atzemanek gero, edo lurzorua kutsatzen duten substantziak daudela adierazten duten zantzu funtsatuak egonez gero, horren berri eman beharko zaie, berehala, Azpeitiko Udalarai eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, azken horrek zehazteko zer neurri hartu behar diren eta zein pertsona fisikok edo juridikok bete beharko dituen neurriak, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikuluaekin bat.

D.3.– Jabari publiko hidraulikoa eta akuiferoak babesteari buruzko neurriak.

Ibaieder ibaiaren gainean aurreikusitako zubiak eta pasabideak gauzatzeko proiektuetan, urtarilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuak (I. eranskina. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren 2022-2027 Xedapen Arauemaileak) zubiak, estaldurak, babes-neurri estrukturalak eta ibilguen trazadura aldatzeko arau espezifikoak buruz 47. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Urbanizatu beharreko eremu berrietako drainatzeari dagokionez, aintzat hartuta xedatutakoa EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean (E.4 atala) drainatze jasangarriko hiri-sistemak aurreikusiko dira (zoldura iragazkorak, landare-estalkiak, areka hobetuak, zerrenda iragazleak, ekaitz-tankeak, iragazketa-zangak, drainak, etab.), bermatzeko

gerora jariatze-ura handitzen bada, lehendik zegoen egoerarekin alderatuta, hazkunde hori konpentsatu ahalko dela edo garrantzirik gabekoa izango dela.

Plan hidrologikoaren araudian xedatzen denaren arabera, hiri- edo industria-drainatzeko azpiegituren bidez biltzen diren euri-uren jarioek, jabari publiko hidraulikoa kutsa badezakete, Uraren Euskal Agentziak emandako isurtze-baimena izan beharko dute.

Jabari publiko hidraulikoan eta haren babes-eremuetan jarduketak egiteko, Uraren Euskal Agentziaren aldez aurreko obra-baimena beharko da.

Era berean, LPS horren D.4 atalean «Akuiferoen kalteberatasun-eremu oso altu edo altuei» buruz seinalatutako zehaztapenak bete beharko dira, eta, gainera, berariaz debekatuko dira lurpeko akuiferoetako urak kutsa ditzakeen isurketa oro (solidoak edo likidoak). Ildo horretan, gomendatzen da azterketa geotekniko bat eta eremuko lurzoru kutsatuak kudeatzeko plan bat egitea, zehazteko zein izango litzatekeen eraikuntza-metodori onena, eta ez kalterik eragiteko akuiferoari eta haren fluxuei.

D.4.– Natura-ondarea babesteko neurriak.

Batasunaren intereseko habitat gisa identifikatutako Ibaiederren ibaiertzeko landarediari eragitea saihestuko da, zehazki: «*Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieetako baso alubialak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*)» (kodea: 91E0*). Zona horretako jarduketak landaredia kontserbazio-egoera egokian mantentzera bideratzen dira.

Obrak egiten hasi aurretik, zehaztasunez balizatuko dira afektazioetatik salbu geratu behar duten landareak, bai eta inausitako zuhaitzak ere, bota ez ditzaten. Zuzeneko okupaziorik aurreikusten ez den eremuetan ahal dela ez da landararik moztuko, ez garbituko.

Ibaieder ibaia bisoi europarraren interes bereziko eremu izateari dagokionez (*Mustela lutreola*), Galzoriako Espezieen Euskadiko Katalogoan dagoen espeziea baita, eta Gipuzkoako LHan kudeaketa-plan bat baitu, Gipuzkoako Foru Aldundiari kontsulta egin beharko zaio, eta hark, espeziea LH horretan kudeatzeko planaren administrazio arduraduna den aldetik, egokitzen jotzen dituen baldintzak ezarriko ditu.

D.5.– Kultura-ondareari dagozkion neurriak.

– Amueko zubia monumentu gisa sailkatuta dago (1964ko otsailaren 29ko BOE). Esku-hartzeak ondare-kalifikaziotik eratorritako baldintzak bete beharko ditu, eta elementu horri balioa eman beharko dio, jatorrizko ezaugarriei kalterik egin gabe.

– Santa Klara komentuan proposatutako esku-hartzeek kontuan izan beharko dituzte haren proposamenetik eratorritako babes-irizpideak, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartu beharreko elementu gisa, babes maila ertainarekin.

– San Frantzisko Komentua A motako balizko arkeologia gune gisa dago izendatuta, eraikinaren harresi barruari dagokionez (1997/10/13ko EHAA, 195. zk.). Horrez gain, Enparan errota balizko arkeologia gunearen zati bat ere hartzen du eremuak (1997/10/13ko EHAA, 195. zk.). Elementu horren interes arkeologikoa oinarritzen da hura babesteko mugatutako eremuko lurpean, lurpeko egituretan, kanalean eta presan.

Eremu horietan, azterlan bat egin beharko da, horietan eragina izan dezakeen edozein obra-proiektu egin aurretik. Azterketa horretan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Historiko-artistikoaren Zerbitzuak ezarriko du beharrezkoa den ala ez aldez aurretik proiektu arkeologiko bat egitea.

– Egun dauden fabrika-multzoari dagozkion tokiko interes arkitektonikoko elementuekin lotuta, azterketa xehatua egin beharko da, bai arkitekturaren eta ingeniariaren ikuspegitik, bai eta

historiaren, gizartearen eta/edo antropologiaren ikuspegitik ere. Horretan oinarrituta eta emaitza gisa, kontuan hartu beharko litzateke ondare- eta kultura-interes handiena duten zatiak balioesteko eta integratzeko aukera eremuaren etorkizunean.

– Enpresa hori eraistea erabakitzen bada, haren balioak kontserbatzeko alternatibarik gabe, gutxienez dokumentatu egin beharko litzateke –jasotze planimetriko baten, argazki-erreportaje baten eta dokumentazio historikoaren bilketaren bidez– enpresa handi horretan gertatutako aldaketak, ekoizpen-urteak, instalazioetan izandako berrikuntzak eta altzairugintzak eta haren industriak udalerrian, bai iraganean, bai gaur egun, izan duten garrantzia bilduta gera daitezen.

– Euskal Kultura Ondarearen 19/2016 Legearen 50. artikulua aplikatuz, zenbait elementuk kultura-ondare babestuan izan dezaketen eraginari dagokionez, kultura-ondasunetan kutsadura bisuala edo akustikoa eragiten duten elementuak instalatzeko debekua ezartzen da.

– Nolanahi ere, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa gorabehera, lur-mugimenduak egin bitartean aztarna arkeologikoren bat egon daitekeen zantzuren bat aurkitzen bada, lanak eten egingo dira, eta berehala jakinaraziko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari; hark erabakiko du zer neurri hartu.

D.6.– Planaren garapena ingurumenean integratzeko neurriak.

Planaren garapen-dokumentuek ingurumen- eta paisaia-lehengoratzeari definituko dute, landareztatu daitezkeen garapenaren egikaritzearen eraginpeko gune guztiak barne hartuta.

Ibaieder ibaiaren ertza lehengoratzeko, IAEan sartutako lehengoratzeko-proiektuan zehaztutako irizpideei jarraituko zaie, eta haltzadi kantauriarraren konplexuaren berezko espezieak landatuko dira. Nolanahi ere, landareztatze horiek ertz osoan zabaltzea gomendatzen da, antolatutako oinezkoentzako bideraino, betiere bateragarriak badira eremuan UAKPn (2022-2027) proiektatutako jarduketekin. Halaber, ingeniariaritzaren naturalistikoko teknikak erabiliko dira sortzen diren ezpondak gauzatzeko eta landareztatzeak.

Ibilgutik urrunen dauden espazio libre berdeak lehengoratzeko, harizti azidofiloko eta harizti/baso misto atlantikoko konplexuetako berezko espezieak erabiltzea gomendatzen da.

Nolanahi ere, landare-espezie autoktonoak erabiliko dira, ahalik eta mantentze-lan gutxien eskatzen dituztenak, inguruko baldintza bioklimatikoetara egokituta. Landareztatze- eta lorategi-lanetan inolaz ere ez dira potentzial inbaditzailea duten espezie aloktonoak erabiliko, hala nola *Cortaderia selloana*, *Arundo donax* eta beste batzuk. – Eremuaren lorategietan aintzat hartuko dira Eusko Jaurlaritzaren *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua* argitalpenaren gomendioak eta neurriak (Udalsarea 21en lan-koadernoan, 20.b zenbakia, 2017ko apirilekoa).

Planaren garapen-proiektuan, espezie horiek lur-mugimenduen bidez hedatzea ekiditeko neurriak zehaztuko dira, eta jarraibideak ezarriko dira betelanean, landareztatze-lanetan eta urbanizazioko lorategi-lanetan erabiliko diren mailegu-lurren eta landare-lurren jatorria eta osaera kontrolatzeko.

D.7.– Ingurumena babesteko neurri orokorrak aurreikusitako garapena gauzatzen den bitartean

Aurreikusitako garapenean, ingurumen-balioei eustea bermatzen duten neurriak aplikatu beharko dira. Bereziki:

– Obrako langileek erabili behar duten jardunbide egokien gidaliburuak gai hauekin zerikusia duten alderdiak bilduko ditu, gutxienez: lanaldiak, makineria, aldi baterako desbideratzeak, isurketak saihestea, ahalik eta hauts eta zarata gutxien sortzea, herritarren lasaitasunean eragin negatiboa izan dezaketen jardunak minimizatzea, hondakinak kudeatzea eta abar.

– Lurzoruen babesak: Obrak, bai eta lurzoruak erabiltzea eragiten duten eragiketa osagarriak ere, proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan gauzatuko dira. Beharrezkoak diren mozte- eta eskokatze-lanak, obra-sarbideak egitea eta kontratistaren instalazio-guneak –makineria-parkea, obra-etxetxoak, obra-materialak, landare-lurren eta hondakinen behin-behineko pilaketen eremuak barne– ingurumenean ahalik eta eraginik txikiena izateko irizpideetan oinarrituz egingo dira, eta, zehazki, ibaiertzeko landaredia kaltetu gabe; halaber, zuzenean okupatu behar ez diren eremuetan ez da mozte- eta eskokatze-lanik egingo.

– Hondakinak sortu eta kudeatzeko: Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak araututakoaren arabera eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutakoaren arabera kudeatuko dira obretan sortutako hondakinak, hondeaketetatik eratorritakoak barne.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira, hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barnean dela.

Hondakinak ezabatzeko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea.

Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko dira sortutako olio erabiliak.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta isurketaren baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete. Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte, eta itxita egon beharko dira kudeatzaileari eman arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezkeen. Aipatutako edukiontzia edo ontziak era argian, irakurgarrian eta ezabaezinean etiketatuta egon beharko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Eremu jakin bat egokituko da aldi batean hondakin arriskutsuak pilatzeko; besteak beste, olio-potoak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar. Gainera, hondakin inerteak biltzeko edukiontzi espezifikoak jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita. Era berean, lanek irauten duten bitartean, sortzen diren hondakinak biltzeko gailu estankoa jarriko dira lanak egiteko eremu osoan (bidoiak, etab.). Motaren arabera bereiziko dira hondakinak, eta, ondoren, aldi baterako biltegitratuko dira aipatutako garbigunean.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia bakoitzeko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek biltzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak jarriko dira, aipatutako nahasketa horiek ekiditeko.

Olio erabiliak, kudeatzaile baimendu bati eman arte, estalpean utziko dira behar bezala etiketatutako depositu estankoean; zola iragazgaitz baten gainean egon beharko dute, kubo txikietan edo ihes eta isuriei eusteko sistemen barruan.

Araudi hori betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lanen arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereiziki, inolaz ere ez da efluente kontrolatu gaberik sortuko, erregai eta produktuak biltegitratzeagatik, makinen mantentze-lanak egiteagatik edo hondakinak erretzeagatik.

Azpeitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaizkie lur susmagarriak detektatzearen ondoriozko kutsadura-arrasto guztiak,

Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikulua betetzeko.

Halaber, dauden eraikinak eraistean, arreta handiz jokatu beharko da, eta amiantoaren duen hondakinik antzematen bada, otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuak, amiantoak ingurumena ez kutsatzeko eta amiantoaren ondoriozko kutsadura txikitzeak, ezartzen dituen eskakizunak bete beharko dira. Era berean, amiantoaren duen hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienezko baldintzak ezartzen dituen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera egingo dira.

Obretan sortutako hondeaketa-soberakinak soberakinen biltegi baimendura eramango dira, eta haien kudeaketa hauen arabera egingo da: 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak zaborteagietan utziz ezabatzeak jardura arautzen duena, eta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

– Lurzoruaren eta lurpeko uren babesa: prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezarriko dira obra-faserako, istripuzko isuriek eragindako erasanak saihesteko, bereziki makinaren mantentze-lanetan (material xurgatzaileak erabiltzea, isuriekin kutsatutako lurzoruak kendu eta kudeatzea eta abar). Pilaketa-eremuak, instalazio osagarriak edo makineria-parkea gainazal iragazgaitzetan kokatuko dira. Ez da makinaren mantentze-lanik egingo iragazgaiztu gabeko eremuetan.

– Airearen kalitatearen babesa: kamioiek obran sartu eta irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira; horretarako, presioko ura edo erratz-makinak erabiliko dira.

– Kalitate akustikoa babestea: Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatzeko akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren emisio akustikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, egokitu beharko dira, hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatua) eta arau osagarrietan ezarritakora.

Obrek iraun bitartean, jardunbide operatibo egokiak aplikatu beharko dira sorburuan zaratak murrizteko, bereziki indusketetan, eraspenetan, zama-lanetan eta garraio-lanetan, bai eta erabilitako makinaren mantentze-lan orokorretan eta zaraten eta bibrazioen sorburuko murrizketan ere.

Eguneko lan-ordutegian egingo dira obrak.

Sei hilabeterako baino gehiagorako lanak badira, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 35.bis artikuluan arabera, inpaktu akustikoari buruzko azterketa bat egin beharko da, behar diren zuzenketa-neurriak zehazteko. Inpaktu akustikoaren azterketan aztertu beharko da zer onura akustiko lortu nahi den neurri zuzentzaile horien bitartez, eremu akustikoetako eta eraikin sentikorretako zarata-maila murrizteari dagokionez, eta ukitutako udalerrinari jakinarazi beharko zaio haren edukia.

D.8.– Eraikingintza eta eraikuntza jasangarriaren aldeko neurriak.

Planaren eremuan eraikingintza eta eraikuntza jasangarrienerako behar diren ezaugarriak dagokienez, EAEko Etxebizitzaren Eraikingintza Jasangarriaren Giden gomendioak hartu beharko dira kontuan, eraikinen energia-aurrezpena eta -efizientzia bultzatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko.

Aipatutako egikaritze-eremuaren urbanizazioari dagokionez, «Urbanizazio-proiektuen garapen jasangarrirako gida»ren gomendioak kontuan hartu beharko dira. Proiektu horien diseinuaren, egikaritzearen, mantentzearen eta bizitza-amaieraren jasangarritasun-maila balioestea da gidaliburu horren helburua.

Neurri horiek, gutxienez, arlo hauetan izan beharko dute eragina:

- Materialak. Lehengai berriztaezin gutxiago kontsumitzea.
- Energia. Energia-kontsumoa murriztea eta/edo energia gutxiago sortzea iturri berriztaezinen bidez
- Edateko ura. Edateko ur gutxiago kontsumitzea.
- Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.
- Uraren zikloa. Uraren kudeaketa eta kalitatea hobetzea.
- Atmosfera. Gas-, hauts-, zarata-, bero- eta argi-emisioak murriztea.
- Eraikinen barne-kalitatea. Barnealdeko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.
- Hondakinak. Hondakin solido gutxiago sortzea.
- Lurzoruaren erabilera. Lurzoruaren okupazioa murriztea.
- Mugikortasuna eta garraioa. Garraio-prozesuak gutxitzea eta pertsonen mugikortasuna hobetzea.
- Ekosistemak eta biodibertsitatea. Naturaguneen funtzioak hobetzea eta biodibertsitatea handitzea eta/edo kontserbatzea.
- Paisaia. Sektorearen eta haren instalazioen paisaia-integrazioa.
- Arriskuak eta segurtasuna. Arrisku naturalak edo antropikoak minimizatzea.
- Klima-aldaketa. Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea.

D.9.– Klima-aldaketa apaltzeari eta klima-aldaketara egokitzeari buruzko neurriak.

Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, Plana gauzatzeko proiektuak klima-aldaketaren aurrean pixkanaka eta erresilientzia egokitzeko beharrezkoak diren neurriak kontuan hartuta diseinatuko dira.

E) Ingurumen-jarraipeneko plana.

Ingurumen-azterketa estrategikoan ezarritakoari jarraituko dio Planaren ingurumen-jarraipenak, zeinak ingurumen-zaintzako programa bat jasotzen baitu. Programa horren xedea da behar diren zaintza- eta kontrol-sistemak ezartzea, egiaztatu ahal izateko planaren aurreikuspenak betetzen direla, eta, horien barruan, planteatutako jarduketaren ingurumen-exijentziak mantentzen direla.

Urbanizazio-proiektuak obretan zer kontrol egin beharko diren zehaztu beharko du, bereziki lurzoruen saneamenduari, ibaiertza eta espazio librearen lehengoratzeari eta interes kulturalen elementuen presentziari dagokionez. Kontrol bakoitzerako, besteak beste, kontrol-parametroak, metodologia, aldizkakotasuna eta atalase-balioak zehaztuko dira.

F) Planetik eratorritako proiektuen ingurumen-ebaluaziorako gidalerro orokorrak.

Planetik eratorritako proiektuen ingurumen-ebaluazioan, aintzat hartuko dira lurraldearen baldintzatzaileak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak 2022ko abuztuaren 22an emandako Ebazpenaren bidez eginiko irismen-dokumentuan adierazten diren ingurumen-irizpideak.

Arreta berezia jarriko da, besteak beste, lurzoru-kontsumoa minimizatzean; hondakinak egoki kudeatzean; jabari publiko hidraulikoa babestean; eremuaren kalitate akustikoan; ingurumen-baliabideen erabilera jasangarrian; habitatak eta espezieak zaintzean eta hobetzean; lurraldean egiten diren esku-hartzeetan paisaia modu egokian integratzean; arrisku naturalak minimizatzean, eta lehentasuna ematean kalteen prebentzioari, ez konpentsazioari.

Bigarrena.– Bi urteko gehieneko epea ezartzea Azpeitiko HAPOren AMUE 11. HErako Hiri Antolamenduko Plan Berezia onartzeko, ingurumen-adierazpen estrategiko hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igarotakoan, plana ez bada onartu, ingurumen-adierazpen estrategiko honen indarraldia amaituko da, eta hortik aurrera ez du ondorerik izango. Kasu horretan, sustatzaileak berriro hasi beharko du Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapidea, non eta ez den ingurumen-adierazpen estrategikoaren epea luzatzea adosten. Hori guztia, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 27. artikuluaekin bat etorritz.

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukia Azpeitiko Udalari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 19a.

Zuzendaria fata izanik eta otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuarekin bat etorritz.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,
Aitor Aldasoro Iturbe.